



Gehiegizko ezkortasunak

Giro oso desberdinetan entzun ditzakegu, azkenaldian, Euskal Herriko independentismoaren nahiz nazio identitatearen bilakaerari buruzko ikuspegi ezkorrak, are katastrofistenak ere. Iritzi horien arabera, independentismoa beherantz omen doa eta euskal nazio identitatea ere krisi sakonean dago. Abertzaleen nahiz unionisten ahotik entzun ditzakegu horrelakoak, Euskal Herrian zein guretik kanpo.

Baina ikuspegi hori ez da iritzi soil moduan aurkezten, egitate frogatu gisa baik. Eta hor dago, nire ikuspegitik, arazoa. Ikerketa soziologikoak aipatu ohi dira iritzi horien legitimazio bitarteko gisa; eta, beraz, ondokoa galdetu beharko genioke geure buruari: egia al da Euskal Herrian independentismoa “minimo historikotan” dagoela, hedabideetako eztabaida askotan baieztatzen den moduan?

Bada, galdera horri erantzuteko, hainbat bide ditugu. Horietao bat hauteskunde emaitzak dira, baina horien arabera abertzaletasuna beherantzko joeretatik urrun dabil urteotan. Gainera, abertzaletasuna aipatu dugu, eta dagoeneko badakigu abertzaletasuna eta independentismoa ez direla gauza bera. Abertzale guztiak ez dira independentistak, eta abertzaleak ez diren independentistak ere baditugu. Nazionalismoa eta independentismoa bereizi beharra aldarrikatzen duten ikuspegi berritzaile horiek, Kataluniako haizeek bultzatuta,

Ikerlan desberdinetan ez da independentziaren aldeko jarreraren beherakada argirik antzematen, eta guztiak adierazten dute urtetik urtera Hego Euskal Herrian bederen independentismoak oinarri esanguratsua duela

dagoeneko nahiko barneratuta ditugu gurean, esango nuke.

Hauteskunde emaitzek balio ez dutenez, ikuspegi ezkor hori ikerketa soziologikoen bidez legitimatzen saiatzen da. Baina Euskal Herri mailako datuak urriak izateaz gain –zein beharrezkoak ditugun nazio mailako datuak!–, arazo nagusia da independentziari nahiz nazio identitatei buruz zer galdetzen den.

Independentziari buruz, datu kontrajarririk ditugu mahai gainean. EAEko Sozio- metroa aipatzen da maiz, baina emaitzak arretaz begiratzen baditugu, ikusiko dugu azken hoge urteetan independentziaren aldeko jarrera ez dela modu nabarmenean aldatu (%25etik 22ra), kontrakoak modu argian indartu diren arren (%24tik 34ra), espainiar nazionalismoaren suspertzeari eta Kataluniako eraginei loturik ziurrenik. Azpimarratzekoa da galdeketa



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO IRAKASLEA

horretan %31 “egoeraren arabera” independentziaren alde edo kontra egongo litzatekeela. Hemen dugu, beraz, ahaztu ohi den datuetako bat, azken talde horretan ere independentziaren aldekoak baititugu, zenbat diren jakin ez arren.

Zifren gerran sartu gabe, azpimarratuko nuke, oro har, ikerlan desberdinetan ez dela independentziaren aldeko jarreraren beherakada argirik antzematen, eta guztiak adierazten dutela urtetik urtera Hego Euskal Herrian bederen independentismoak oinarri esanguratsua duela: EAEko %31 azken Euskobarometroan, eta Euskal Herri osoko %40,7 estatu propio baten alde Euskal Estatu irudikatzen lanean, bi adibide jartzearen.

Arazoa konplexuagoa da nazio identitatei dagokienean. Izan ere, nazio identitatei buruzko ezagutza urria dugu gurean, uste duguna baino txikiagoa. Ikerketa soziologikoetan erabili ohi den eskalak –*espainiarra/frantziarra baino euskal herritarrago modukoa*– datu interesgarriak eman ditzake, baina ez du zehazki nazio identitatea aztertzen, bes-telako pertenezia sentimendu batzuk ere (atxikimendu erregionala, lotura afektiboa, estatu batekiko kidetza administratiboa, eta abar) barne biltzen dituen heinean. Paradoxikoa dirudi, ondorioz, lehia politikorako diskurtsoa izan daitekeena egitate frogatutzat hartzea, bereziki norberaren posizioaren kontra egiten denean. ●